

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozio ereduak funtziona dezan ezinbestekoa izanen da gure enpresak egin behar dituen funtsezko jarduerak antolatzea. Funtsean, honako hauek lirateke: Ekoizpena, arazoen konponketa eta plataforma edo sareko jarduerak.

Ekoizpenari dagokionez, hiru zatitan banatzen da; alde batetik produktuaren diseñua, bestetik ekoizpena fabriketan eta azkenik entrega. Gure enpresaren kasuan hainbat jarduera utziko ditugu beste enpresen esku. Diseñuaz gure enpresa arduratuko da, gure disenatzaileak produktua grafikoki barnealdetik teknologikoki (hau da, ekoizpen enpresak nola sortuko duen robota aginduko duena) ikusaraztea ahalbidetuko du. Produktuaren ekoizpena, noski, beste enpresen esku utzi behar izango dugu, gure enpresak ez baitauka fabrikaziorako ahalmenik. Azkenik, entrega ere beste enpresa handiagoen esku utziko dugu, hala nola, media markt, guk ez baitgara adina ezagunak. Halere, guk ere gure web-orriaren bitartez saltzeko aukera izango dugu. Web orrien eskakizunen tranporteei dagokionez, CTT enpresaren esku utziko dugu.

Gure produktua ohikoak diren hainbat arazoen konponketa ahalbidetuko du. Alde batetik, edozein etxe garbitzeko ahalmena du, lehioak zein solairua. Beste aldetik, janariak gosariak eta afariak prestatzeko gaitasuna ere badu. Horiek direla eta, etxeko lanak betetzeko denborarik ez duten pertsonak ez dute inungo arazorik izango hemendik aurrera. Gure produktuak hitz egiteko sistema du aplikatua, horregatik, bezeroekin berba egin dezake, haiei konpainia eginez. Azken hau bakarrik bizi diren pertsonentzat konponbide bat izan daiteke.

Azkenik, sareko jarduerak egongo lirateke. Gure produktua ezaguna izatea da helburu nagusienetako bat. Hori dela eta, plataforma jakin batzuk erabiliko ditugu, hau da, segmentazioaren atalean hautatutako publikoari zuzenduta egongo diren plataformak. Nahiz eta “TikTok” plataforma gero eta efektiboa den publizitatea egiterakoan, han ez dugu aurkituko bilatzen dugun arreta, orokorrean soilik nerabeak baitaukate aplikazio hori.

Beraz, sareen bidezko publizitatea facebook eta googleren bitartez egingen dugu. Googlen ohikoa da web-orri bat ikusi bitartean publizitatea agertzea pantailan, eta horixe da guk egingo duguna. Gaur egun, jendeak mugikorra telebista baino askoz gehio erabiltzen duelako. Facebookri dagokionez, publizitatea ere egin daiteke, gainera, egungo 30 urtetik gorako heldu gehienak plataforma hori erabiltzen dute.